

txokoan

Txapeldunak irabazle ozta-ozta

40-39 irabazi zuten Ezkurra-Imaz txapeldunek atzo Galarretan jokaturako partidu nagusia. Garikoitz Altuna eta Iriartek erruz eman zieten lana. Erremonte 2000 enpresak XXI. mendeko Binakako Txapelketa aurkeztuko du datorren asteartean. Bestalde, Urrezko Palako bi partidu jokatu ziren atzo Deportivo: Insausti-Garma, 35; Iriondo-Rekalde, 40. Daniel-Juan Pablo, 40; Sanchez-Garrido, 36.

Bost afizionatu gazte Maeskura

Luis Benito Naldaren enpresak (Maesku 2000) afizionatu mailako bost pilotari gazte fitxatu ditu: Asier Azpiroz, Ekaitz Saralegi eta Iñigo Leiza aurrelariak eta Julian Albizuri eta Ibai Erauzkin atzelariak. 19-21 urte bitartekoak dira guztiak. 2000. urte amaieran egingo dute debuta.

gaurko partiduak

TOLOSA. 16:30.

- Salaberria-Taberna / Agirre-Imaz
- Beloki anaiak / Tirapu-Armendariz.

EIBAR. 17:00.

- Galarza V.a-Hirigoin / Berasaluze VII.a-Milikua
- Etxaniz-Goñi III.a / Olaizola I.a-Arroyo II.a.

BERMEO. 17:30.

- Monasterio-Mendia / Urkidi-Oregi I.a
- Begoñes-Alonso / Esnal-Zubiaga.

GALARRETA. 16:00.

- Zeberio III.a-Gaztelu / Zalakain-Badiola
- Zeberio II.a-Etxabe / Altuna II.a-Iriarte
- Kalonge-Lizaso / M. Lekunberri-A. Lekunberri
- Sarasua-Mendizabal / Lezea-Urretabizkaia II.a.

EUSKAL. 16:00.

- Perugarria-Iturralde / Ziganda-Barrenetxea II.a
- Altuna I.a-Aizpuru / Iñigo-Eizaguirre
- Elizalde-Auzmendi / Matxin-Zubeldia
- Iribarren-Ekiza / Bereziartua-Zandio.

DEPORTIVO. 16:30.

- Uriarte-Enbil / Alberdi I.a-Goitia
- Daniel-Juan Pablo / Iriondo-Rekalde
- Insausti-Garma / Sanchez-Garrido.

biharko partiduak

NAJERA. 17:45.

- Nagore-Zearra / Barberito VI.a-Errandonea
- Gorostiza-Nalda III.a / Minguez-Galarza IV.a.

EIBAR. 17:00.

- Esain-Auxkin / Gonzalez-Apeztegia
- Eugi-Zezeaga / Titin III.a-Elkoro
- Badiola III.a-Almandoz / Txafee-Iparragirre.

GALARRETA. 16:00.

- Zeberio III.a-Amenabar / Bereziartua-Etxebe II.a
- Zeberio II.a-Lizaso / Altuna I.a-Iriarte
- Elizalde-A. Lekunberri / Matxin-Aizpuru
- Zeberio I.a-Ekiza / Lezea-Etxeberria III.a.

EUSKAL. 16:00.

- Brit-Reklusa / Esparza-Iturralde
- Ezkurra-Imaz / Altuna II.a-Etxabe
- Bitoria-Zubeldia / Sarasua-Auzmendi
- Agirresarobe-Urko / Iribarren-Zestau III.a.

DEPORTIVO. 17:00.

- Ermua-Beldarrain / Zeberio-Ziskar I.a
- Daniel-Juan Pablo / Urkia-Torre
- Iriondo-Rekalde / Sanchez-Garrido.

Pilota ♦ Finalerdietako txartelaz gain, aurrelariak binakakoan aritzeko aukera izan dezakete jokoan

Gabon eguna, Gabon Torneoa


Beloki anaiak eta Tirapu-Armendariz ariko dira gaur Tolosan

Enekoitz Telleria / Donostia

URTARRILAREN 9AN da Euskal Herriko eskuz binakako txapelketa abiatzekoa, eta enpresa bakoitza bere bikoteak prestatzen ari da. Aitzakia horrekin antolatu du Asegarek, esaterako, bere Gabonetako Torneoa, eta gaur jokatu da Tolosako Beotibarren hirugarren jardunaldia: Alberto eta Ruben Beloki Tirapu eta Armendarizen kontra. Torneoko finalerdietan aritzeko txartela dago jokoan, baina, sakonago begiratu, binakakoan parte hartzeko aukera ere bai bi aurrelari gazteentzat, gaurko bi atzelariak —zalantzarik gabe— txapelketa horretan ariko dira eta.

Gaurko irabazleek Ariznabarreta-Rairen kontra jokatu dute igandean Barañainen. Final-laurdenetako bestea etzi jokatu dute, Nagore-Zearrak eta Barberito VI.a-Errandoneak. Hango irabazleek, Unanue-Rai izango dituzte kontrario astelehenen Tolosan bertan.

Probak egiten dabil Asegar-



XOUSE SIMAL

Ruben Belokik Alberto anaiarekin jokatu du gaur Tolosan.

ce. Unanue, Alustiza eta Nagore binakakoan aritzeko aurrelari finkoak dira. Salaberria, Ariznabarreta, Agirre, Alberto Beloki, Tirapu eta

Barberito VI.a dira beste hautagaiak. Beloki, Armendariz, Errasti, Errandonea eta Arretxe atzeko koadroak zaintzeko prest dira. Patxi

Ruiz, Rai eta Zearra ari dira postu baten bila. Dena dela, oraindik ez da erabaki enpresa bakoitzetik bost edo sei bikote ariko diren.

Aspe, Eibarren

Asperen Gabonetako jaialdi guztiak —igandean Alberiten jokatu dena kenduta— Eibarko Astelenan jokatu dira. Gaurko estelarra Etxaniz-Goñi III.ak eta Olaizola I.a-Arroyo II.ak jokatu dute. Biharkoa, berriz, Eugi —lau t'erdiko finala galdu zuenetik lehenengo partidua du— eta Zezeagak Titin eta Elkoroen kontra.

Fernando Bidarteren enpresan gauzak garbiago daude agian binakako txapelketari begira. Elkoro, Zezeaga, Berna, Lasa III.a eta Fernando Goñi atzeko koadroetarako, eta Eugi, Titin, Mikel Goñi, Capellan eta Olaizolatarrak aurrean aritzeko. Ikusi egin beharko da zenbat bikoterekin jokatzen den txapelketa. Litekeena da norbait kanpoan gelditu edo beste norbait sartzea.

CLUB ATLETICO OSASUNA Orduategia: 10etatik 13,30ak arte eta 16,30etatik 20,30ak arte, asteartetik larunbatera

Eguberri hauetan
Aukera egokia
Osasunako opari bat, bere denda ofizialekoa.
Gorritxoena

Osasunako produktuen eskeintza zabalena. ZATOZ EL SADARRERA zure opari dendara.

Ohiko orduategiaz gain, zeure erosotasunerako igande 26, 10etatik 13.30ak arte, eta astelehen 27 osoan irekitzen dugu